

ORDIZIA / Irakurle taldea

Ikasturte berriarekin batera Ordiziako Irakurle Taldeak hirugarren urtez zabalduko dizkio atea euskal literaturari. Bi urteetan egonkortu den taldeak gogotsu helduko dio aurtengo bideari ere. Hilean behin elkartzen da taldea Barrenan eta irakurritako liburua izaten dute hizpide inguratzen direnek; sentipen, bizipen, esperientzia eta iritzi truke aberatsa da Irakurle Taldea. Liburuak udal liburutegiak jartzen ditu eskuragarri. Ekimenak berritasunak izango ditu aurtengo ikasturtean; blog bat (www.ordiziakoirakurletaldea.blogspot.com.) jarriko dute abian helburu ezberdinekin: irakurritako liburuen idazleei elkarrizketak egingo dizkiete, bertaratu ezin dutenek modu birtualean eman ahalko dute iritzia, jolasak proposatuko dira. Irailaren 25ean egingo dute lehenengo saioa, arratsaldeko zazpitan. Bertan ikasturteko lehenengo liburua jaso eta besteak aukeratuko dira.